ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

ESP.	**2023IPLE0003**
ATALA.	**IDAZKARITZA**
GAIA	**ALBIZTURKO UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA**

2023-04-04ko UDALEKO EZ-OHIKO BILKURA

Albizturren, 2023ko apirilaren 4ean, arratsaldeko 19:30tan, udaletxeko udalbatza-aretoan, Udaleko ohiko batzarra egin da, Alkate Iñaki Orbegozo Arrospide jauna duela.

BERTARATUAK:

- Iñaki Orbegozo Arrospide
- Alazne Urkizu Galarraga
- Larraitz Ezeiza Artola
- Mikel Galarza Arrue
- Aingeru Galarraga Barandiaran

BERTARATU EZ DIRENAK:

- Aitziber Orbegozo Arrospide

Udaleko idazkari kontu-hartzailea:

- Oihan Ostolaza Arruabarrena

AZTERGAIAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA
2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA
3. OGASUNAREKIN INFORMAZIOA ELKARTRUKATZEKO ESPARRU HITZARMENA
4. LANDA BIDEEN DIRULAGUNTZA
5. LANDALUR SAILEN DIGITALIZAZIORAKO DIRULAGUNTZA
6. BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN BERRIKUSPENA
7. GALDERA ERREGUAK

1. AURREKO AKTAREN ONARPENA

2023-03-07ko akta aho batez onartu da.

2. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

2023ko 21 eta 27 bitarteko dekretuen berri eman da.

3. OGASUNAREKIN INFORMAZIOA ELKARTRUKATZEKO ESPARRU HITZARMENA

2023ko martxoaren 17an argitaratu zen GAOn martxoaren 6ko 110/2023 Foru Agindu bidez onartutako Ogasun eta Finantza Departamendua eta Gipuzkoako udalen artean informazioa elkartrukatzeko Esparru Hitzarmena.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- Martxoaren 6ko 110/2023 Foru Agindu bidez onartutako Ogasun eta Finantza Departamendua eta Gipuzkoako udalen artean informazioa elkartrukatzeko Esparru Hitzarmenari atxikitzea eskatzea.

Bigarrena.- Hitzarmenari atxikitzeko beharrezkoa den tramitazioarekin hastea.

4. LANDA BIDEEN DIRULAGUNTZA

2023ko martxoaren 20an argitaratu zen GAOn Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetarako dirulaguntzen 2023ko deialdia eta apirilak 20 arteko epea dago eskaerak egiteko.

Dirulaguntza hau bide publikoak konpontzeko da, baina geroz eta arazo gehiago ditugu bide publikoak zein diren identifikatzeko, ez dagoela inbentariorik.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2023an ez eskatzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko landa bideetarako dirulaguntzarik.

Bigarrena.- Albizturko bide publikoen inbentarioa egitea.

5. LANDALUR SAILEN DIGITALIZAZIORAKO DIRULAGUNTZA

2022. urtean Albizturko Udalak landalur sailen digitalizaziorako dirulaguntza eskatu zuen eta Geograma espresaren eskutik 2. poligonoko lursailak digitalizatzen ari da.

Badirudi 2023. urteko landalur sailen digitalizaziorako dirulaguntza hurrengo egunetan argitaratuko dela.

Gaia aztertu ondoren, Osoko bilkurak aho batez honakoa erabaki du:

Lehena.- 2023ko landalur sailen digitalizaziorako dirulaguntzaren bidez 3. poligonoko lursailak digitalizatzea.

Bigarrena.- Dirulaguntza argitaratzen denean beharrezko tramitazioarekin hastea.

ALBIZTURKO UDALA (Gipuzkoa)
AYUNTAMIENTO DE ALBIZTUR

6. BIZTANLEEN UDAL ERROLDAREN BERRIKUSPENA

Osoko bilkurak 2023ko urtarrilaren 1ari dagokion Albizturko Udal biztanleen erroldaren berrikuspenaren berri izan du, kopurua 325 biztanle izanik.

7. GALDERA ERREGUAK

- Elane Jatetxeari aplikatu beharreko hondakinen tasa: 2023ko Albizturko Ordenantza Fiskalen arabera Albizturko herritarrek hondakinen tasan %50eko hobaria dute hondakin organikoentzako konpostagailua erabiltzen badute. Elane Jatetxeak ere konpostagailua erabiltzen duenez hondakin organikoetarako, jatetxeei dagokien hondakinen tasan %50eko hobaria aplikatzea adostu da.

Osoko bilkura, 20:40tan eman du amaitutzat Alkateak eta bertan azaldutakoa jasoa gera dadin honakoa sinatzen dut.

Albizturren, 2023ko apirilaren 5ean

72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Firmado digitalmente por 72538480E IÑAKI ORBEGOZO (R: P2000400H)
Fecha: 2023.10.25 09:27:18 +02'00'

OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Firmado digitalmente por OIHAN OSTOLAZA ARRUABARRENA - 72477498J
Fecha: 2023.10.25 10:10:12 +02'00'